

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5369

1352/2020 EBAZPENA, azaroaren 19koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Juan José López Aldaz jauna Erradiodiagnostiko zerbitzuko Administrazio taldeburu izendatu da, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

1055/2020 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan Erradiodiagnostiko zerbitzuan Administrazio taldeburu lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen proposamena egin du. Horiek horrela, eta Juan José López Aldaz jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Erradiodiagnostiko zerbitzuko Administrazio talde-buru Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Juan José López Aldaz jauna izendatzea Erradiodiagnostiko zerbitzuko Administrazio taldeburu, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2020ko azaroaren 16tik aurrera izan ditu ondorio ekonomikoak eta administrazio-arlokoak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatzea, baina edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eustea. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dago-kionez. Atxikipen horrek kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Donostialdeko ESlari jakinaraziko zaie.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2020ko azaroaren 19a.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea.

E (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Pertsonaleko zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.